

---

**CLBS-EN GARDENTASUN-POLITIKA**  
**WEBGUNEEN EDO URRUTIKO KOMUNIKAZIOKO BESTE TEKNIKA BATZUEN**  
**BIDEZ PRODUKTUAK ESKAINTZEKO EDO KONPARATZEKO ASEGURU-**  
**BITARTEKARITZAKO JARDUERAN**

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 134.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Espainiako ordenamendu juridikoan sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren, aseguru pribatuen, pentsio-plan eta -funtzen, zerga-arloaren eta zerga-azuzien arloko Europar Batasunaren hainbat zuzentarau txertatzen dituen («BOE», 31. zk., 2020ko otsailaren 5koa), dokumentu honen helburua da CLBSren barne-politika islatzea. Barne-politika horrek aseguruetan bitartekaritza-jardueraren gardentasuna bermatzen du, produktuak webguneen bidez edo urrutiko komunikazioko beste teknika batzuen bidez eskaintzeko edo alderatzeko, aseguru-entitateen produktuak hautatzeko eta konparatzeko erabilitako irizpideei dagokienez; produktuak eskaintzen dituzten aseguru-entitateak eta CLBSekin duten kontratu-harremana; aseguru-entitateekiko harreman hori ordaindutakoa den ala ez eta ordainsariaren izaera; prozesuaren amaieran agertzen den aseguruaren prezioa bermatuta dagoen ala ez; eta informazio hori eguneratzeko maiztasuna.

**OHAR OROKORRAK**

Webgune honetan jasotako informazioa ez da kontratu-konpromiso edo -gomendio bat, eta aseguru-harremanaren perfekzioa aseguru-konpainiarekin poliza harpidetzera eta bezeroak kontratatu nahi duen prima ordaintzera atzeratzen da.

Aseguramendu-baldintzak aseguru-kontratuan ezarritakoak izango dira. Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (1980ko urriaren 17ko «BOE», 250. zk.), ohartarazten da polizaren edukia ez badator bat aseguru-proposamenarekin edo adostutako klausulekin, aseguru-hartzaileak aseguru-entitateari erreklamatu ahal izango diola, poliza entregatu eta hilabeteko epean, dagoen dibergentzia konpon dezan. Epe hori igaro eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan xedatutakoari jarraituko zaio.

**GARDENTASUN POLITIKAREN PRINTZIBIOAK**

Bitartekaritza-jarduera gauzatzean, CLBSk gardentasun-printzipio hauek bete behar ditu:

**1. Aseguru-entitateen produktuak hautatzeko eta alderatzeko erabilitako irizpideak.**

Gure bezeroei eskaintzen dizkiegun aseguru-produktuei dagokienez, baldintzen, primen, estalduren edo bazterketen ikuspegitik aztertzen dira, haien interes eta beharretara ondoen egokitzen den eskaintza bat egiteko.

---

Arreta berezia jartzen dugu aseguru-entitateen barne-prozesuen eta ezbeharrak izapidetzeko prozeduraren analisisian eta balioespenean, bai eta peritazioen bizkortasunean eta ordaindu beharreko kalteen likidazio ekonomikoan ere, estandar altuenak kontratazioaren xede izan daitezkeen zerbitzu aseguratzailen kalitate/prezio erlazioan bilatuz.

## **2. Produktuak eskaintzen zaizkien aseguru-entitateak eta bitartekariarekiko kontratu-harremana.**

Bezeroari honako aseguru-konpainia hauen produktu aseguratzailak eskaintzen dizkiogu:

- Seguros Lagun Aro, S.A., IFK: A-20079224
- Seguros Lagun Aro Vida, S.A., IFK: A-20182705
- La Previsión Mallorquina de Seguros, S.A., IFK: A-08169013
- Sanitas, S.A. de Seguros, IFK: A-28037042
- EXPERTIA, Seguros de Decesos, S.A., IFK: A-33003906,
- Caja de Seguros Reunidos, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. - CASER, IFK: A-28013050
- Europ Assistance, S.A. Espainiako sukurtsala, IFK: W-2504100-E
- Generali España, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros, IFK: A-28007268
- HISCOX S.A. Espainiako sukurtsala, IFK: W0185688I
- TELEFÓNICA SEGUROS Espainiako sukurtsala, IFZ: W0182798I
- Mutua de Propietarios Seguros y Reaseguros a Prima Fija, IFK: G-08171332.

Aseguru-entitateekiko kontratu-harremanari dagokionez, merkataritza-kontratu batean oinarritzen da, gure independentzia profesionalari eragin gabe.

## **3. Aseguru-erakundeekiko harremana ordaindua den ala ez eta ordainsariaren izaera.**

Aseguruen banaketan gure jarduera profesionala da eta, beraz, komisioren araubidean ordaindua, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 156.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ordainketa hori aseguru-entitateak egiten dio CLBSri, eta, beraz, ez da bezeroak aseguru-entitateari ordaindu beharreko primaren zenbatekoaren kostu gehigarria.

## **4. Prozesuaren amaieran agertzen den aseguruaren prezioa bermatuta dagoen ala ez.**

---

CLBSk aseguru-entitateak hautatu eta kontsultatzeko eta bezeroak eskatutako premietara ondoen egokitzen den produktua konparatzeko erabiltzen dituen prozesu informatikoei esker, produktuaren azken ezaugarriei buruzko informazio nahikoa lor daiteke, eta, horri esker, kasu bakoitzean, bezeroak jakin dezake eskainitako prezioa bermatuta dagoen edo, aitzitik, gutxi gorabeherako prezioa den, eta ziurtatu nahi den arriskuaren berezitasunak hobeto ezagutzen dituen.

## 5. Banatzaileen informazioa zenbatean behin eguneratzen den.

Espainiako aseguru-merkatuan jarduten duten aseguru-entitateen eta banaketa-jardueran sartzen diren produktuen etengabeko azterketak gure informazioa etengabe berrikustea eskatzen du, eta, horri esker, eguneratuta eduki dezakegu gure web-orriaren bidez ematen dugun informazioa.

### WEB ORRIAREN TITULARTASUNA ETA ERABILERA-BALDINTZAK

Webgune hau ([LK WEBGUNEA](#)) CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOrena (aurrerantzean, Laboral Kutxa) da

- **Identifikazio Fiskaleko Zenbakia:** F-75076935
- **Egoitza soziala:** JOSE M<sup>a</sup> ARIZMENDIARRETA PASEALEKUA Z.G. - ARRASATE
- **Merkataritza Erregistroan Inskribatzea:** Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago: 253. Liburukia, 65. Folioa, SS 31616. orria, 0 Liburua
- **Harremanetarako e-maila:** Edozein kontsulta egiteko, jarri harremanetan helbide elektronikoa hau erabiliz: [kontaktatu@laboralkutxa.com](mailto:kontaktatu@laboralkutxa.com)

## Erabilera-baldintzak

Webgunearen erabilera ona egiteko betebeharra duzu, hau da, indarrean dagoen legeriarekin, fede onarekin eta ordena publikoarekin bat datorrena. Era berean, konpromisoa hartzen duzu Webgunea iruzurrezko helburuetarako ez erabiltzeko, ezta haren erabilera eta funtzionamendu normala eragozteko ere, eta LABORAL KUTXAren edo hirugarrenen irudia, interesak eta eskubideak ez kaltetzeko.

Webgune hau arautzen duten Kondizio eta Baldintzetatik eratorritako edukia eta/edo betebeharrak urratzen badituzu edo horren susmoa badago, LABORAL KUTXAK Webgunerako sarbidea mugatzeko, eteteko edo amaitzeko eskubidea izango duela jakinarazten zaizu, horretarako beharrezkoa den edozein neurri tekniko hartuz.

---

Era berean, LABORAL KUTXAK Webgunerako sarbidea ezabatu, mugatu edo eragozteko eskubidea izango du, baldin eta, LABORAL KUTXAren iritziz, Webgune horrek behar bezala funtzionatzeko hartutako segurtasun-mailak edo estandarrak murrizten edo deuseztatzen dituzten zailtasun teknikoak sortzen badira. Horretarako, LABORAL KUTXAK beretzat gordetzen du webguneko zerbitzuen jarraitutasunari buruzko erabakia hartzeko ahalmena.

## WEBGUNEAREN EDUKIA

LABORAL KUTXA da webgunearen jabetza intelektualaren eta industrialaren ustiapen-eskubideen titularra, edo, hala badagokio, dagozkion lizentziak ditu, baita bertan eskainitako eduki guztiena ere, besteak beste, adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa, testuak, argazkiak edo ilustrazioak, logoak, markak, grafismoak, diseinuak, interfazeak, edo beste edozein informazio edo eduki, eta horren bidez eskura dauden zerbitzuak.

Inola ere ez da ulertuko Webgunea zure aldetik sartu, nabigatu eta erabiltzeak edo horren bidez eskainitako produktuak edo zerbitzuak erabili, erosi eta/edo kontratatzeak LABORAL KUTXAK eskubide horiei uko egitea, eskualdatzea, lizentzia ematea edo eskubide horiek osorik edo partzialki lagatzea dakarrenik.

Webguneko edukiak eta/edo zerbitzuak erabiltzeko eskubidea duzu, etxeko eremuan soilik, eta Lege Ohar honen arabera zerbitzuaren prestazioez gozatzeko soilik.

Erregistratutako marka edo izen komertzialei edo bestelako zeinu bereizgarriari buruzko aipamenek, LABORAL KUTXAren edo hirugarren enpresen titulartasunekoak izan, inplizituki debekatzen dute horien erabilera, LABORAL KUTXAren edo haren legezko titularren berariazko baimenik gabe. Webgunera eta/edo bertako edukietara sartzeak, nabigatzeak edo erabiltzeak ez du inolako eskubiderik ematen bertan sartutako zeinu bereizgarrien gainean, berariaz kontrakoa adierazten ez bada.

Webguneko eduki eta/edo zerbitzuen gaineko jabetza intelektual eta industrialeko eskubide guztiak erreserbatuta daude, eta, bereziki, debekatuta dago Webguneko eduki guztiak edo horien zati bat aldatzea, kopiatzea, erreproduzitzea, jendurrean komunikatzea, eraldatzea edo banatzea, edozein bide erabiliz eta edozein modutan, helburu publiko edo komertzialetarako, LABORAL KUTXAren edo, hala badagokio, eskubideen titularraren alde aurreko, esanbidezko eta idatzizko baimenik izan ezean.

Era berean, debekatuta dago copyright-oharrak edo Webgunean aurkitzen dituzun edukietako eskubideen titularrak identifikatzen dituzten bestelako kredituak ezabatzea edo manipulatzeko, bai eta Webgunean eskaintzen diren edukietan sartutako babes-gailu teknikoak, hatz-markak edo edozein babes- edo informazio-mekanismo ere.

---

Edozein motatako informazioa bidaltzen badiozu LABORAL KUTXAri horretarako gaitutako edozein kanalen bidez, hori askatasunez egiteko eskubidea duzula aitortzen, bermatzen eta onartzen duzu, informazio horrek ez duela jabetza intelektualeko, industrialeko, merkataritzako sekretuko edo hirugarrenen beste edozein eskubideren eskubiderik urratzen, eta informazio hori ez dela konfidentziala eta ez dela kaltegarria hirugarrenentzat.

Halaber, LABORAL KUTXAk honako hau adierazten du:

Webgunean dagoen informazioak informazio-helburua du, eta ez du inolako gomendiorik ematen. Ezin da, inola ere, LABORAL KUTXAren aldetik lege-, zerga-, finantza-, inbertsio-, teknika-, eskaintza- edo berme-aholkularitza hartu, ez eta eragiketak egiteko gomendiotzat ere, eta ez da norabide jakin batean erabakiak hartzeko oinarria izango, eta LABORAL KUTXAk ez du inolako erantzukizunik izango zentzu horretan Webgunean dagoen informazioa erabiltzeagatik.

LABORAL KUTXAk ez du erantzuten berak eginak ez diren eta beste iturri batek adierazten dituen informazioen egiazkotasun, zehaztasun, nahikotasun, osotasun edo eguneratzearen gainean. Halaber, LABORAL KUTXAk ez du erantzukizunik izango adierazten diren iturrietatik Webgunean ager daitezkeen iritzi edo iruzkinetan.

LABORAL KUTXAREN aurreko aitortpenak AITORTU ETA ONARTZEN DITUZU, eta Webgune honen erabiltzaile zaren aldetik aplikagarria zaizun araudia betetzen duzula BERMATZEN DUZU.

Legez kontrako, legez kanpoko edo legeen aurkako edukiren bat dagoela edo jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak urratzen dituela jakiten baduzu, berehala jakinarazi beharko diozu LABORAL KUTXAri helbide elektroniko honen bidez: [kontaktatu@laboralkutxa.com](mailto:kontaktatu@laboralkutxa.com), dagozkion neurriak har ditzan.

Era berean, edozein pertsonak edo hirugarrenek uste badu LABORAL KUTXAren jabetzako Webguneko edukietako batek jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak eta beste edozein eskubide urratzen dituela, komunikazioa bidali beharko du [kontaktatu@laboralkutxa.com](mailto:kontaktatu@laboralkutxa.com) helbidera, informazio honekin:

- Erreklamatzailaren edo haren legezko ordezkariaren identifikazio-datuak eta harremanetarako modua.
- Ustez urratutako eskubideen titularra dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- LABORAL KUTXAk ustez urratu dituen eskubideen kontaera zehatza, baita urraketa hori Webgunearen barruan zehazki non izan den ere.
- Erreklamatzailaren berriazko adierazpena, edukiak ustez urratutako eskubideen titularraren baimenik gabe erabili direla adieraziz.

## ESTEKEN POLITIKA

---

Beste web orri batzuetarako estekak.

Webgunean beste web orrialde batzuetarako estekak agertuko balira botoi, esteka, banner, enbebitutako eduki eta abarren bidez, LABORAL KUTXAk jakinarazten du horiek zuzenean hirugarrenek kudeatuko lituzketela. LABORAL KUTXA ez du ahalmenik beste plataforma batzuek emandako informazio, eduki, produktu edo zerbitzu guztiak alde aurretik ezagutzeko eta/edo kontrolatu eta/edo onartzeko, baldin eta Webgunetik estekak ezar badaitezke.

Kasu horietan, bitartekaritza-zerbitzuen emaile gisa jarduten du, IGZLren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, ondorioz, LABORAL KUTXA ez da estekatutako Webgune horietako zerbitzuen arduraduna.

Ildo horretan, hirugarrenen web orri hauen bidez garatutako jarduerak legez kanpokoak direla edo moralaren eta/edo ordena publikoaren aurkakoak direla jakingo bazenu, berehala jakinarazi beharko diozu LABORAL KUTXARI, horietara sartzeko esteka desgaitu dadin. Nolanahi ere, Webgunetik kanpoko beste web orri batera edozein motatako lotura ezartzeak ez du esan nahi LABORAL KUTXAREN eta web orri horretako arduradunaren artean inolako harreman, lankidetzeta edo mendekotasunik dagoenik, komunikatzailea ez den beste pertsona bati dagokionez. LABORAL KUTXAK klausula honetan aurreikusitako jakinarazpena jasotzeak ez du esan nahi, IGZLn xedatutakoaren arabera, komunikatzaileak adierazitako jarduerak eta/edo edukiak benetan ezagutzen dituenik, hori nabarmena edo agerikoa ez denean. Nolanahi ere, LABORAL KUTXAK beretzat gordetzen du Erabilera Baldintza hauetan ezarritako arauen aurkakoak diren edukiak, legez kontrakoak ez izan arren, bertan behera uzteko edo kentzeko eskubidea, kasu bakoitzean gatazkan dauden ondasun juridikoak aztertuz.

Webgunerako estekak ezartzea

Era berean, Webgunerako estekak ezarriz gero, honako baldintza hauetan bakarrik egin ahal izango da:

- Estekak Webgunearen orri nagusiarekin baino ez du lotuko.
- Estekak ezingo du izan Webgunea Webguneaz bestelako Internet helbideen bidez bistartzeko aukera ematen duten frameak edo markoak, edo beste edozein modutan Webgunearen informazioa beste web orri batzuetan sartutakoarekin batera erakusten dutenak.
- Esteka sartzeko duen web orritik ("Gune Estekatzailea") ez da inolako adierazpen faltsu, oker edo okerrik egingo Webguneari eta/edo LABORAL Kutxari buruz.

LABORAL KUTXAK emandako baimenak ez du inola ere esan nahi: (i) LABORAL KUTXAK babesten, laguntzen, egiaztatzen edo ikuskatzen duela Gune

---

Estekatzailearen bidez ematen diren edukiak eta/edo zerbitzuak; ezta (ii) LABORAL KUTXA inola ere Gune Estekatzailearen edukiaren erantzule dela ere.

Gune Estekatzaileak leialtasunez bete beharko du Legea, eta ezin izango ditu inola ere hemen adierazitako eduki propioak edo hirugarrenenak eduki: (i) zilegiak ez direnak, hirugarrenen eskubideei kalte egiten dietenak, kaltegarriak, iraingarriak, bortitzak, desagokiak edo moralaren, usadioen eta ohitura onen aurkakoak direnak (pornografikoak, arrazistak, etab.); (ii) LABORAL KUTXAK igorlearen ideiak, adierazpenak edo esamoldeak, zilegiak edo ez-zilegiak, sinatzea, babestea, atxikitzea edo edozein modutan babestea eragin edo eragin dezaketenak; eta (iii) LABORAL KUTXAren jarduerari dagokionez desagokiak edo ez egokiak direnak.

Arestian adierazitako edozein baldintza betetzen ez bada, LABORAL KUTXAK dagozkion legezko neurriak hartuko ditu.

#### LABORAL KUTXAren erantzukizuna

Zure ardura da neurri tekniko egoki guztiak hartzea sare irekien mehatxuak zentzuz kontrolatzeko, eta, besteak beste, software maltzurra, hala nola birusak, troiarrak eta abar detektatzeko sistema eguneratuak izatea, bai eta nabigatzaileen segurtasun-partxeak eguneratuta izatea ere. Informazio gehiago nahi izanez gero, LABORAL KUTXAren Segurtasun Politika ikus dezakezu, edo Internetera sartzeko zerbitzuen hornitzailearengana jo dezakezu, zure beharretara egokitutako konponbideak emateko. Legedi aplikagarriak baimentzen duen gehieneko irismenarekin, LABORAL KUTXAK ez ditu bere gain hartuko erabilitako inguruneak berezko dituen arriskuen ondorioz sortutako kalte-galerak, ez eta bere sistema eta tresnen kalteberatasunek eragindakoak ere. LABORAL KUTXAK ez du bermatzen bere sistemen erabateko segurtasuna ere, eta segurtasun-neurri egokiak dituen arren, ezin da erabat baztertu kalteberatasunak daudela, eta, beraz, zuhur jokatu beharko duzu Webgunearekin.

Zehazki, LABORAL KUTXA ez da honako hauen erantzule izango:

- Erabiltzailearen ekipo informatikoetan birusek, harrek, troiarrak edo beste edozein elementu kaltegarriak eragindako edozein motatako kalte eta galerak.
- Erabiltzaileari eragindako edozein motatako kalte eta galerak, baldin eta akats edo deskonexioak sortzen badira telekomunikazio-sareetan, eta akats edo deskonexio horiek Webguneko zerbitzua etetea, ezeztatzea edo moztea eragiten badute zerbitzua ematen den bitartean. Horri dagokionez, aitortzen duzu Webgunera sartzeko LABORAL KUTXAren kontroletik kanpoko hirugarrenek emandako zerbitzuak behar direla (adibidez: telekomunikazio-sareetako operadoreak, sarbide-hornitzaileak, etab.) haren fidagarritasuna, kalitatea, jarraitutasuna eta funtzionamendua ez dagozkio LABORAL KUTXAri, eta ez dagozkio zerbitzuaren erabilgarritasuna bermatzea.
- Hirugarrenen informazioa, LABORAL KUTXA bitartekaritza-zerbitzuen emaile gisa aritzen den kasuetan, IGZLk emandako zentzuan, salbu eta informazio hori benetan ezagutzen denean eta dagokion informazioa jaso ez denean.

- 
- LABORAL KUTXAK ere ez du erantzukizunik izango Webgune honen edo bere edukiaren erabilera desegokiagatik jasan ditzakezun kalte eta galera zuzen edo zeharkakoengatik, eta ez du inolako konpromisorik hartuko aldaketak jakinarazteko edo edukia aldatzeko.

## WEBGUNEA ETETEA

LABORAL KUTXAK eskubidea izango du Webguneko eduki eta/edo zerbitzuen erabilera, alde zuzenetik jakinarazita edo jakinarazi gabe, bertan behera uzteko, aldatzeko, mugatzeko edo etetea, aldi baterako edo betiko, Lege Ohar honetan zehaztutako xedapenetako edozein urratzen duten pertsonen, arrazoi horrengatik kalte-ordainik eskatzeko aukerarik gabe.

Beraz, Lege Ohar honen indarraldia bat dator esposizio-denborarekin, harik eta erabat edo zati batean aldatzen den arte; une horretan, aldatutako Lege Oharrak indarra izango du.

Ezartzen diren baldintza partikularrak gorabehera, LABORAL KUTXAK, edozein unetan eta aurreabisurik gabe, Webguneko edukietarako sarbidea amaitutzat eman, eten edo moztu ahal izango du, erabiltzaileek inolako kalte-ordainik eskatzeko aukerarik izan gabe. Iraungitze horren ondoren, indarrean jarraituko dute Lege Ohar honetan azaldutako edukiak erabiltzeko debekuek.

Era berean, Lege Ohar hau betetzen ez baduzu, LABORAL KUTXAK zure profila eten edo ezeztatu ahal izango du automatikoki eta alde zuzenetik abisatu gabe, eta etete edo ezerezte horrek ez dizu inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango. Ondorio horietarako, LABORAL KUTXAK jakinarazten du eskumena duten agintari polizial eta judizialei jakinarazi eta lagundu ahal izango diela, indarreko legeriaren edozein arau-hauste hautematen badu edo delituren bat egin dela susmatzen badu.

LABORAL KUTXAK Webgunearen bidez eskaintzen duen edozein produktu eta/edo ordainketa-zerbitzuren kontratazioa zerbitzu espezifiko bakoitzaren baldintza orokorren eta/edo partikularren arabera arautuko da.

Lege Ohar honetan ezarritakoaren eta Webguneko zerbitzu espezifiko bakoitzaren baldintza berezien artean desadostasunik badago, azken horietan xedatutakoa nagusituko da.

Edozein Epaitegi, Auzitegi edo administrazio-organo eskudunek Lege Ohar honetako edozein xedapen baliogabetzat edo aplikaezintzat jotzen badu, osorik edo zati batean, deuseztasun edo ez-aplikatze horrek ez die eragingo haren gainerako xedapenei.

LABORAL KUTXAK Lege Ohar honetan jasotako edozein eskubide edo xedapen ez erabiltzea edo ez gauzatzea ez dakar horri uko egitea.



---

## APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Indarrean dagoen araudiak zehaztuko ditu LABORAL KUTXAREN eta erabiltzaileen arteko harremanak arautuko dituzten legeak eta horien gaineko jurisdikzioa. Hala eta guztiz ere, araudi horrek aldeei foru jakin baten mende jartzeko aukera aurreikusten badie, Webgune honetatik eratorritako edo harekin lotutako auzigai orori auzia gertatzen den unean indarrean dagoen Espainiako legeria aplikatuko zaio. Era berean, LABORAL KUTXAK eta erabiltzaileek, legokiekeen beste edozein foruri berariaz uko eginez, Bergarako Epaitegi eta Auzitegien mende jartzen dira.

Gure zerbitzuen erabileran erreklamazioak aurkezteko, postaz jo dezakezu "Identifikazioa" atalean adierazitako helbide elektronikoa edo fisikora.